



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko otsailaren 4a

7. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Tafallako Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa (10. or.).
- Lehendakariaren, eledunen eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko behin-behineko langileen ordainsariak (14. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren tarifak 2005eko ekitaldirako (15. or.).
- Enkanterako deialdia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren gaztelaniazko eta euskarazko edizioak eta Nafarroako Parlamentuko Bilkura Egunkaria inprimatu, paketatu eta banatzea adjudikatzekoa (15. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko azaroaren 30ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Tafallako Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2004ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **Tafallako Udalari buruzko fiskaliza- zio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (3. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
  - IV.1. 2003ko aurrekontu bateratuaren likidazioa (4. or.).
  - IV.2 2003ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (4. or.).
  - IV.3 Legezketasuna (4. or.).
  - IV.4 2003ko abenduaren 31ko finantza-egoera (4. or.).
  - IV.5 Informazio osagarria eta azalpen oharrak (5. or.).

IV.6 Comptos Ganberaren gomendioen jarraipena (5. or.).

IV.7 Ondorio orokorra (5. or.).

V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (5. or.).

V.1 Administrazio-kontratazioa (5. or.).

V.2 Langileak (7. or.).

V.3 Bestelako kudeaketa-gomendioak (8. or.).

VI. Sociedad Ciudad Deportiva Tafalla, S.A. (8. or.).

Alkate ohi Luis Valero jaunak aurkezturiko alegazioak (9. or.).

Alkate ohi Luis Valero jaunak aurkezturiko alegazioei emaniko erantzuna (9. or.).

I. eranskina. 2003ko finantzen egoera-orri bateratuen oroit-idazkia.

II. eranskina. Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.ren urteko kontu laburtuak.

(Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean: [www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

#### **I. SARRERA**

Tafallako Udalak 10.842 biztanle ditu, eta hauek dira bertako zifra adierazgarrienak 2003ko abenduaren 31n:

## Euroak

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak
Udala	10.930.744	12.703.470	129
Musika Eskola	378.657	198.753	15
Kultur Patronatua	353.580	31.516	4
Kirol Patronatua	539.648	222.077	7
Zaharrentzako egoitza-ospitalea <sup>(1)</sup>	–	–	–
Ciudad Deportiva Tafalla, S.A. <sup>(2)</sup>	–	–	–
<b>Guztira</b>	<b>12.202.629</b>	<b>13.155.816</b>	<b>155</b>

(1) Ez dago informaziorik.

(2) Urteko kontuak bereziak ditu, auditoria egindakoak (ikus oroit-idazkiko 5. eranskina).

Udalak ondoko entitateetan hartzen du parte:

a) Mairagako Mankomunitatean, zeinaren bidez ematen baititu uraren ziklo integralaren zerbitzuak eta hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendukoak.

b) Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitatean, gazteen kirol-jarduerak nahiz gizarte eta kulturaren arlokoak egiteko.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2003ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa osatzen dute, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak eta administrazio-kontratazioa nahiz hirigintza-kudeaketa eraentzen dituzten arauak; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko arauak ere.

Kontabilitate eta aurrekontu arloan, araubide juridikoa honako hauetan ezarritakoa da: 270, 271 eta 272 zenbakiak dauzkaten foru dekretuak, guztiak 1998ko irailaren 21ekoak, zeinak aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako Toki Administrazioarako kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Tafallako Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 2003ko ekitaldiko aurrekontuen garapena eta betetzea.

b) 2003ko abenduaren 31ko ondare-egoerak duen agerpena, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun printzipioari egokitzen ote zaion.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2003ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Tafallako Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.

f) Azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2002ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Comptos Ganberak, bere jarduketa programarekin bat, Tafallako Udalaren (aurrerantzean, "udala") eta haren erakunde autonomoen -Udalaren Musika Eskola, Udalaren Kultur Patronatua eta Udalaren Kirol Patronatua- finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2003ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza bateratua eta diruzaintzako gerakin bateratua, eta 2003ko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua, bai eta finantzen egoera-orri bateratu horien 2003ko ekitaldiko informazio osagarria eta azalpen oharrak ere.

Ez ditugu aztertu zaharrentzako egoitza-ospitaleko finantzen egoera-orriak; ez ditugu eskuratu eta ez dira udaleko egoera-orriekin bateratu beharrekoak.

“Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” merkataritza sozietateak urteko kontuak egiten ditu, eta profesional independenteek egiten dute haien gaineko auditoria (aldeko iritzia eman dute). VI. epigrafean, 2003ko urteko ekitaldiari dagozkion kontu laburtuei buruzko informazio garrantzitsuena apailatu dugu.

Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka, eta kontabilitatearen egoera-orri bateratuak dauzka, udalari eta haren erakunde autonomoei dagozkienak.

Eginiko azterketak ardatz nagusi izan ditu aurrekontuaren betetzearen kapitulu ekonomikoen berrikuspena (aurrekontuko aldaketak eta aurreikuspenen betetze-maila aztertu dira) eta ondare-masa ezberdinen berrikuspena (antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako gaiak aztertu dira).

Lana burutu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauei jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian utzi diren baldintzen eta arazoen arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenean jasota daude udalaren eta haren erakunde autonomoen antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomen-dioak.

Landa-azterketa 2004ko maiatzean egin da.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

#### IV. IRITZIA

Adierazitako norainokoa aintzat hartuz, Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratuak, 2003ko abenduaren 31n amaituriko ekitaldikoak, aztertu ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoriako arau eta prozedurak aplikatu dira.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko iritzia eman behar dugu:

#### IV.1. 2003ko AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOA

Erantsi dugun 2003ko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orriak eta oharrek behar bezala agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, ekitaldiko jarduera eta 2003ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

#### IV.2. 2003ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

2003ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren finantza- eta ondare-egoera. Salbuespenak dira, batetik, ondasunen (ibilgetua) inbentarioa, gaurkoturik ez dagoelako -1993koa da-, eta, bestetik, ez direla zenbatetsi funtzionarioen pensio-sistematik heldu diren betebeharrak aktuarialak; sistema hori, izan ere, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeak arautu zuen.

#### IV.3. LEGEZKOTASUNA

Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioak, oro har, legezketasun printzipioari jarraitzen dio, salbu eta V.2. epigrafean aipatzen ditugun oharpenengatik, langile kontratatuen lan hitzarmen berriari buruzkoak.

#### IV.4. 2003ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

2003an hasierako aurrekontu bateratua 19.183.700 eurokoa da, eta behin betikoa 19.855.200 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 61koa du, eta dirusarrerena, ehuneko 66koa (ehuneko 71koa gastuetan eta ehuneko 69koa dirusarreretan, 2002an).

Errealizazio maila txikiak honako arrazoiak ditu: inbertsioak ez gauzatzea, edo haien adjudikazioan eta gauzatzean atzerapenak egotea. Horrek, izan ere, berekin dakar dirusarreraren txikiagoak izatea horiekin loturiko kapituluetan; esate baterako, kapital-transferentziak, inbertsioen besterentzea edo pasibo finantzarioak.

Dirusarreraren artean, zuzeneko zergen exekuzioa ehuneko 96koa izan da, eta zeharkakoena ehuneko 95ekoa; bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 19 egiten dute. Udalaren baliabideen ehuneko 35 transferentzietatik datoz.

Ekitaldia ixtean 953.187 euroko superabita izan da, eta aurrekontuko emaitza doitua 1.995.027 euroko superabita izan da. 2003ko abenduaren 31n, zor finantzarioa 7.312.434 eurokoa zen, 2003ko ekitaldian mailegu berri bat kontratatuta baita, 2.140.000 eurokoa. Funts horien xedea,

nagusiki, kirolgunearen obrak finantzatzea da, "Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." udal enpresari egini-ko kapital-ekarpenen bitartez. Horren sozietate-helburua da aipaturiko kirolgunea eraiki eta ondoren ustiatzea. Diruzaintza-gerakin bateratua 2.735.963 eurokoa da.

Aurrezki garbia negatiboa da, ehuneko hirukoa; horrek esan nahi du dirusarrera arruntak ez direla aski izan funtzionamendu gastuak eta gastu finantzarioak ordaindu ahal izateko. Gastu finantzarioak datozen urteetan jaitziko ez direnez (oroit-idazkiko 41. orrialdea) eta udalak bere zerga nagusiak Toki ogasunei buruzko Legeak ezarritako gehieneko mugaraino ordainarazten dituenek, salbu eta hiri-kontribuzioaren kasuan, esan daiteke, aurreko ekitaldian bezala, halako zalantza bat dagoela etorkizunean zorraren bolumenari aurre egiteko baliabideak sortzeko udalak duen ahalmenari buruz. Horri dagokionez, oso argigarria da zor biziak dirusarrera arrunten gainean izan duen bilakera azaltzen duen taula ikustea, oroit-idazkiko 42. orrialdean.

Dena den, 2003ko martxoan udalak lankidetzarako esparru-akordio bat sinatu zuen Nafarroako Gobernuarekin eta Vinsarekin, lurzoru eta etxebizitzaren arlokoa, 2003-2006 ekitaldietarako, bai eta 2003rako jarduketa-plana ere, udalarenak diren lursailen multzo bat urte horretan saltzeagatik 2.631.778 euroko dirusarrera ekarri duena urte horretan.

Kapital dirusarrera horiek eta hitzarmenak indarra duen bitartean lor daitezkeenak, lurzorua- ren udal ondareko osagai direnez, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legeko 277. artikuluan baimendutako motetako inbertsioak finantzatzeko erabil daitezke, alde batera utzita, hein batean, baliabide propio aski ez izatea, bai eta transferentziak ere, osotara dirusarreraren ehuneko 35 egiten dutenak.

#### IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan beharrezkoa den informazioa dago egoera-orri haiek interpretatu eta ulertzeko, udaleko oroit-idazkiak agertzen duenez.

#### IV.6. COMPTOS GANBERAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke lan hau egiteko unean, ganbera honek egini-ko gomendio administratibo eta kontabilitatezko nagusiak aintzat hartu direla.

#### IV.7. ONDORIO OROKORRA

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, adierazi behar dugu Tafallako Udalak, ikuspuntu administratibotik, ongi kudeatzen dituela bere aurrekontuak, baina beharrezkoak dituela ondokoak:

a) Finantzen ikuspegitik, udalaren gaur egungo egoerak zalantzak pizten ditu zorraren zama finantzarioari aurre egiteko baliabideak sortzeko duen ahalmenari buruz. Gainera, azpimarratzekoa da udalak gaur egun bere zerga nagusiak ordainarazten dituela toki ogasunei buruzko legeak finkaturiko gehieneko muga ezarrita, hiri-lurraren kontribuzioaren kasuan izan ezik. Egoera hori dela-eta, beharrezkoa gertatzen da hurrengo ekitaldietarako bideragarritasun finantzarioari buruzko plana gaurkotzea eta onestea, honakoak aztertuko dituenak: eman beharreko zerbitzuak, haien kostua eta kostu hori herritarrei jasanaraztea, proiektu berriak eta zorpetzeko gaitasuna bezalako gaiak.

b) Halaber, beharrezkoa litzateke gastua arrazionalizatzeko politika bat ezartzea, batez ere langileriarren arloan, non aitorturiko betebeharrak ehuneko 12 egin baitute gora aurten aurreko ekitaldiarekin konparatuta, batez ere lansarrietan izaniko igoeren ondorioz, bai eta, logikoa denez, ekitaldian zehar antzinatasunarengatik, graduarengatik eta KPIaren arabera gaurkotzeengatik egin diren igoeren ondorioz ere. Azpimarratu beharra dago ekitaldian zehar zinegotzien ordainsariei buruzko araubide berria onetsi dela, beren kideei ordainsariak ematen dizkieten Nafarroako udalentzat diru konpentsazioak ezartzen dituen 23/2003 Foru Legearen eraginez, bai eta lan kontratupeko langileentzako beste hitzarmen kolektibo bat, 2003-2005 urteetarako -V.2 epigrafean aztertzen dugu hori-.

c) Aztertu behar da zaharrentzako egoitza-ospitaleak egun duen forma juridikoa, erakunde autonomoarena, egokiena ote den, bere izaera kontuan hartuta. Bitartean, udalak erakunde autonomo horri eskatu beharko lioke urteko aurrekontu eta kontuen likidazioa epean egin dezala, eta hura udalaren kontu orokorrean sartzea.

#### V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

##### V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xeheaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

### V.1.1. Homidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Espedientea	Adjudikatzeko prozedura	Adjudikazioaren zenbatekoa
Eskualdeko ikastetxeko atletismo pistako zoladura konpontzea	Negoziatua, prentsan iragarri beharrekoa	44.701 €
Atletismo pistako bihurguneak eta kontra-helmuga konpontzea	Iragarri gabe negoziatua	20.023 €
Fotokopiagailuaren hornidura	Negoziatua, prentsan iragarri beharrekoa	22.286 €

Comptos Ganbera honen gomendioak betez, erosketen kudeaketarako prozedura normalizatua aplikatzen da. Oro har, ondorioa da hornidurak eta zerbitzu emateak kontratatzeke prozedura egokia dela. Dena den, hartutako laginetan oinarrituz, honako ondorioak atera ditugu:

- Argiteria publikoaren berrikuspen eta mantentze zerbitzua ematen duen enpresak 82.000 euro fakturatu ditu ekitaldian, baina ez da inongo kontratazio prozesurik egin, udaleko teknikari eskudunek horri buruz ohartarazita ere. *Zerbitzu hori adjudikatzeko behar den lehiaketa egin dadin gomendatzen dugu.*

### V.1.2 Inbertsioak

Kapitulua exekuzio maila baxua izan du (% 27), batez ere kontratazio espedientea ez delako hasi aurrekontuan jasotako obra batzuetarako (AR-7 urbanizazioa; Cidacos ibaia bideratzea; 1. faseko irisgarritasun plana; SGU-15eko obrak: aurrekontuetan, oro har, 2.850.800 euroko gastua zegoen haietarako).

2003ko ekitaldian ez da nabarmentzeko moduko adjudikaziorik egin inbertsioen arloan. Egin den gastua funtsean aurreko ekitaldietan adjudikatutako obrei dagokie.

Hona hemen 2003an exekutaturiko inbertsio nagusien zehaztapena (inbertsio horiek 2003ko ekitaldian zehar aitorturiko betebeharren ehuneko 78 egiten dute):

Egindako gastua, eurotan

Espedientea	Prozedura	Adjudikazioa	2003	2002 eta 2001
AR-2 plan partzialeko proiektua egitea	Irekia-lehiaketa	96.324	60.639	–
Etxe merkeen zolaberritze osagarria	Publizitaterik gabe negoziatua	98.707	88.975	–
UAO-2 unitatea urbanizatzea	Irekia-lehiaketa presako izapideaz (*)	2.062.793	217.890	2.242.545
Haur eskola	Irekia-lehiaketa	1.293.823	675.231	49.385
Gazteen etxea	Irekia-lehiaketa presako izapideaz (*)	574.647	459.043	22.486
Guztira			1.501.778	2.314.416

(\*) Obra hauen espedienteak adjudikatzeko prozedurei buruzko iruzkinak ganbera honek 2001eko eta 2002ko ekitaldiez, hurrenez hurren, eginiko txostenetan jaso ziren.

Tafallako Udalaren fiskalizazioetan funtsezko hobekuntza antzeman dugu adjudikazio prozeduren gaian, bai eta kasuan kasuko espedienteak betetzeari dagokionez ere.

Azterturiko espedienteak kontratazioari buruzko araudiari egokitu zaizkio, eta berdintasun, lehia-kortasun eta publizitate printzipio oinarrizkoak errespetatu dira.

- Haur eskola eta gazteen etxea egiteko obrak ez dira bukatu 2003ko abenduaren 31n. Lehenbizikoari dagokionez, atzerapena dago haren exekuzioan; bigarrena, berriz, handitu egin da, eta obra printzipaleko kontratistari adjudikatu zaio, sarbide berria egin dezan.

- “Etxe merkeen zolaberritze osagarriko” obra, Mairagako Mankomunitateak sareak berritzeko eginiko lanaren osagarritzat jotzen dena, udalak adjudikatu zion zuzenean eta presaz obra printzipaleko kontratistari. Nafarroako Gobernuaren 60.000 euroko dirulaguntza du, baina dirulaguntza hori ez da jaso kudeaketan izaniko atzerapenarengatik.

Espedientean ez da kontu-hartzaitzaren txostenik, Gobernu Batzordeak adjudikazioa eta gero eskatu duen arren; izan ere, txostenak fiskalizazio izaera galduko luke a posteriori emanaz gero.

- Hiri Antolamendu planeko UAO-2 unitateko urbanizazio obrak 2000ko martxoan adjudikatu ziren, eta 8 hileko epea eman zen obrak egiteko. Ekitaldi hartako txostenean bertan, biltzar honek azpimarratu zuen obretan izandako atzerapena, zeren eta urbanizazioa partikularren obrekin batera egin baitzen.

Obrak ia bukatu zeuden 2002ko abuztuan, aurreko obra-ziurtagiriaren datan. 2003ko apirilean, obrak partzialki hartzeari buruzko akta egin zen. Urrian, lurzati batera sartzeko baimen judiziala lortu zen, eta, hartara, konponbidea eman zitzaion obra bukatzeko oztipoetako bati. Abenduan obrak partzialki hartu ziren, eta amaierako likidazioa onetsi zen, 2.430 mila eurotan; horrek adjudikazioaren zenbatekoaren ehuneko 27 egiten du. Obra zuzendaritzaren txostenean esaten da ezinezkoa dela atzerapenarengatik alderdi bakoitzari (adjudikazio-hartzailea, udala, jabeak eta zerbitzu-konpainiak) egotzi beharreko ardurak bereiztea eta kuantifikatzea, eta uko egiten zaiola zehapenak ezartzeari. Osoko Bilkurak hori onetsi zuen.

## V.2. LANGILEAK

2002an udalaren eta funtzionarioen arteko hitzarmen kolektibo sinatu ondoren, 2003ko maiatzeko Osoko Bilkuran, aurreko udalbatzak udale-

ko lan kontratupeko langileentzako hitzarmen kolektibo berria onetsi zuen; hitzarmen hori lan arloko agintarien gordailuan utzi eta urte bereko irailean eman zen argitara. Tramitazioan, kontrako bi txosten tekniko aurkeztu ziren, bata Kontu-hartzaitzarena eta beste Langile Atalarena, bereziki mailaz igotzeko ezarritako prozedurarengatik. Onetsi zeneko osoko bilkurako aktan, ez da agertzen idazkariak berariaz ohartarazi zuenik sistema legez kontrakoa zela, baina zinegotzi batek bai esan zuen aholkularitza juridikoa kezkatuta zegoela zuzeneko maila-igoerengatik.

Hitzarmenak hautaprobetan oinarrituriko sistema bat aurreikusi zuen lan taldez igotzeko, betiere lanpostu hutsen erreserba murriztua eginez behe-ragoko taldeetako langileentzat. Baina eranskin batean, hitzarmenak zuzenean igotzen ditu goragoko mailara lanpostu jakin bateko titular guztiak, bai eta beste bost langile ere, izenaz aipatzen direnak:

Nafarroako administrazio publikoetako langileei buruzko arauak berariaz jotzen dute Langileen Estatutura eta hitzarmen kolektibora lan kontratupeko langileen lan harremana arautzeko. Lan kontratupeko langileen hitzarmen kolektibo honetan mailaz igotzeko ezarritako sistema orokorra Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuak langile funtzionarioentzat ezarritako bera da, eta aldi berean, Langileen Estatutuak 24.2 artikuluan exijitutakoak bermatzen ditu; izan ere, bertan, merezimendu eta gaitasun irizpideak exijitzen dira sailkapen profesionaleko sistemaren barruko maila-igoerak antolatzeko.

Hori dela eta, hitzarmen kolektiboaren eranskinak zenbait gaitzespen izan ditu, testu artikuludunaren beraren aurkakoa delako, ezartzen den sistema orokorra alde batera uzten baitu, eta mailako atxikipen berrien justifikazio zehatzagoa falta delako, lehen esan bezala.

Gure ustez, eranskin horren onespina ez dator bat administrazio publikoen jarduketaren ezaugarri izan behar duten printzipioekin, baina ohartarazi beharra dago behin gordailuan utzi eta lan agintariek argitaratzeko agindua eman dutenean, azterturiko hitzarmenak legezketasun presuntzioa duela, eta instantzia judizialetan baizik ezin dela aurkatu.

Udalaren eta langile funtzionarioen ordezkarien artean sinaturiko hitzarmenaren barruan, udaleko funtzionarioek erreklamazio bat aurkeztu dute, lan kontratupeko langileekin berdinduz; erreklamazio hori Gobernu Batzordeak onespina emateko dago.

### V.3. BESTELAKO KUDEAKETA-GOMENDIO- AK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

Kasu batzuetan, gomendioak 2003ko ekitaldian betetzen ari dira.

#### V.3.1. Antolamendu orokorra

- *Plantilla langileria-beharrizanei egokitua ote dagoen jakiteko azterlan bat egitea, honakoak ikertuko dituena: plantilla arrazoizkoa ote den, lanpostu bakoitzeko lan-zama eta kasu bakoitzeko ordainsari-mailak eta gastu sozialak.*

- *Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz jarritzea, eta exekuzio-fase bakoitzerako arduradunak identifikatu eta esleitzea.*

#### V.3.2. Inbentarioa-ibilgetua

- *Udal ondasunak -bai jabetza publikokoak, bai ondarekoak eta herri-ondasunak ere- eskuratzeko eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *1993ko udal inbentarioa gaurkotu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzea eta kontabilitateko ibilgetuarekin lotuta egotea ziurtatzeko.*

- *Altak eta bajak kontabilizatzeko eta ibilgetuko dokumentazioa artxibatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Sociedad Deportiva Tafalla, S.A. udal sozietatea kirolgunea eraikitzen ari den lur-sailak, zeinak udalaren jabetzakoak baitira, lagatzeko akordioa formalizatzea.*

#### V.3.3. Langileak

- *Araudiak ezarritako datetan onetsi eta argitaratu behar da plantilla organikoa.*

- *Udal langile bakoitzak bere administrazio espedientea izan behar du, lanbide-karrerari eta gorabehera pertsonalei dagozkien egintza eta*

*dokumentu esanguratsuak uneoro gaurkoturik jasoko dituena.*

#### V.3.4. Alderdi orokorrak.

- *Indarreko legediak ezarritako epeetan egin eta onestea aurrekontuak, kudeaketarako oinarrizko lanabesa izan daitezen, eta likidazioa azkartasunez egitea.*

- *Aurrekontu-aldaketen espedienteak osorik egitea, bertan sartuz haien beharra justifikatzen duen oroit-idazkia, aparteko kredituak eta kreditugehigarriak izaki.*

#### V.3.5. Erakunde autonomoak:

- *Zaharrentzako egoitza-ospitalearen definizio juridikoa aztertu eta zehaztea, aplikatzeko zaion kontabilitate-erregimena zein den argitzeko eta, kasua bada, kudeaketaren egiazko eskakizunei egokitzeko.*

## VI. SOCIEDAD CIUDAD DEPORTIVA TAFALLA, S.A.

Pertsona bakarreko sozietate anonimoa, zeinaren akzionista bakarra Tafallako Udala baita. 2001ean eratu zen, 300.000 euroko kapital sozialarekin –kapital hori guztia izenpetu eta despoltsatu zen–, eta bi kapital-gehikuntza ere izan dira, guztira 9.755.000 euro egiten dutenak. Xede soziala da Tafallako Kirol Hiria eraiki eta ekipatzea, “Miguel Induráin” udal belodromoan.

Ciudad Deportiva Tafalla SA sozietateak enpresa batekin kontratatu zuen kirol hiriaren eraikuntza, 11.307.442 euroko kostuarekin (BEZa eta gastuak barne). 2003ko abenduaren 31n, kirol hiria eraikitzeko fasean dago; aurreikusitako obraren ehuneko 71,2 inguru eraiki eta ziurtatu da. Hasierrako obran sartu diren aldaketen eta egin diren obra-zabalpenen ondorioz, eraikuntzaren amaierako estimazioak ehuneko 39,6ko desbideraketa nozitu du; hori dela eta, aurreikusitako amaierako obrak 15.787.386 euroko kostua izanzen du (BEZa eta gastuak barne). 2004ko uztailean bukatuko dela aurreikusi da.

2003ko abenduaren 31ko egoeraren balantzeak honako saldoak agertzen ditu:

2003ko AKTIBOA		2003ko PASIBOA	
Ibilgetua	11.551.470	Kapitala	300.000
		Erregistroan jaso gabeko zabalkuntza	9.755.000
Aktibo zirkulatuak	980.470	Epe laburreko hartzekodun komertzial.	2.476.940
Guztira	12.531.940	Guztira	12.531.940

Profesional independente batek aztertu ditu ekitaldiko kontuak, eta aldeko iritzia eman du.

Francisco José Etayo Salazar auditore jaunak proposatuta, lan honen ardura izan baitu, ematen dut txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete eta gero.

Iruñean, 2004ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

#### **ALKATE OHI LUIS VALERO JAUNAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK**

Comptos Ganberako lehendakari agurgarri hori:

Tafallako Udalari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldiko, jaso berri dut. Ekitaldi horretan, neu izan nintzen herriko alkatea ekainera arte.

IV.3 atalean, legezketasunari buruzkoan, txostenak dio "Udalaren jardura ekonomiko-finantzarioak, oro har, legezketasun printzipioari jarraitzen dio, salbu eta V.2. epigrafean aipatzen ditugun oharpenengatik, langile kontratatuen lan hitzarmen berriari buruzkoak".

V.2 epigrafean, langileei buruzkoan, esaten da 2003ko maiatzeko osoko bilkuran aurreko udalbatzak udaleko lan kontratupeko langileen hitzarmen kolektibo berria onetsi zuela, nahiz eta aurkako bi txosten tekniko egon, bata Kontu-hartzaitzarena eta bestea Langileen Atalarena, bereziki mailaz igotzeko aurreikusitako prozedura zela eta. Horretatik honako iritzia dator:

"Gure ustez, eranskin horren onespina ez dator bat administrazio publikoen jarduketaren ezaugarri izan behar duten printzipioekin, baina ohararazi beharra dago behin gordailuan utzi eta lan agintariek argitaratzeko agindua eman dutenean, aztertutako hitzarmenak legezketasun presuntzioa duela, eta instantzia judizialean baizik ezin dela aurkatu".

Aipatu iritzitik ondorioztatzen den larritasuna dela eta, adierazi beharra daukat UPNko taldeak, zeina osoko bilkura hartan alkatetzaren jabe baitzen, ni neu bainitzen alkatea, erabaki horren aurka bozkatu zuela, eta honako adierazpenak egin zituela, besteak beste, eta aktan jaso zirela: "...hori dela eta, gure ustez hona ekarri dutena "trakkeria bat da", bi txostenak aurka ditu, eta gure iritziz deuseza izan daiteke, eta, horregatik, erretiratzeko eskatzen dugu, eta udalbatza berria izan dadila langileekin hitzarmen berria negoziatzen duena; erretiratzeko ez bada, aurka bozkatuko dugula iragartzen dugu, zeren eta uste baitugu zuzenbidez deuseza dela, eta erabateko zentzugabekeria".

Bilkura hartako aktaren eta bi txosten teknikoek aktak erantsi ditugu.

Adeitasunez, Tafallan, 2004ko azaroaren 22an

Alkate ohia: Luis Valero Erro

#### **ALKATE OHI LUIS VALERO JAUNAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI EMANIKO ERANTZUNA**

Bere osoan eusten diogu txosteneko V.2 atalari, zeren eta uste baitugu dioena ez dela ezertan aldatu egindako alegazioarekin; era berean, bat gatoz alegazio-egilearekin esaten duenean UPNko udal taldea, une hartan alkatetzaren zegoena, udaleko lan kontratupeko langileen hitzarmen kolektibo onestearen aurka azaldu zela, 6 botorekin, eta hitzarmen hori aldeko 10 botorekin onetsi zela, hain zuzen ere PSN, GM, IU eta EA taldeen botorekin.

Halaxe jasota dago 2003ko maiatzaren 21eko osoko bilkuraren aktan, eta akta hura lan hau egiteko eskuratu ziguten.

Iruñean, 2004ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak, 2005eko urtarrilaren 17an, honako ebazpen hau eman zuen:

Nafarroako Comptos Ganberako idazkari nagusiak proposamen txosten bat eman du legelari izateko bi lanpostu huts, erakunde horren plantilla organikoan daudenak, betetzeari buruz. Erakunde horretako zerbitzu juridikoek eta Kontuhartzaitzak, hala nola administratzaileak ere, adostasun txostena eman dute. Horiek horrela,

**EBATZI DU:**

**Lehena.-** Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Ondoren ematen dira haren arauak.

**Bigarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 17an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde.

### Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa

Hona hemen deialdi honetako oinarriak:

**1. oinarria.-** Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzea.

1.2. Lekualdatze lehiaketa honetan honakoak izanen dira arau: 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua eta, horren osagarri, Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua eta hura garatu eta betearazteko eman zen Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua.

1.3. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiak Nafarroako Comptos Ganberako funtzionarioentzat eta, bereziki, legelari lanpostuarentzat ezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen dituzte.

Beren eginkizunak Nafarroako Comptos Ganberaren Antolaketarako Erregelamenduen 6. artikuluan ezarri zirenak dira (Ganberako lehendakariak 1996ko maiatzaren 20an emaniko Ebazpenaren bidez onetsia eta 1996ko maiatzaren 31ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua), alegia, besteak beste ondoko hauek: Ganberako lehendakariari eta beste kide batzuei aholku juridikoa ematea; kontuen arloko erantzukizunei dagokienez Nafarroako Comptos Ganberari dagozkikeen jurisdikzio espedienteen tramitazioa egitea; Nafarroako Comptos Ganberaren ordezkaritza eta defentsa behar den jurisdikzio organoen aurrean, eta txosten eta irizpen juridikoak egitea eskatzen zaizkion aferen gainean.

1.4. Lanpostuak A mailakoak dira eta lansariak maila horri dagozkionak izanen dira, eta Nafarroako Comptos Ganberaren plantilla organiko indardunean zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.5. Deialdi honetako lanpostuei geroago beste zenbait gehitzen ahalko zaizkie, alegia, epaimahai kalifikatzaileak lehiakideen zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, deialdia egin duen organoari igortzen dion egunean hutsik daudenak.

1.6. Comptos Ganberari buruzko Foru Legearen 34. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, legelariak erakundearen Ahokularitza Juridikoan egonen dira sarturik, eta eginkizunei dagokienez Comptos Ganberako idazkari nagusiaren menpean.

**2. oinarria.-** Hautagaien betebeharrak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu huts horiek lekualdatze-lehiaketaren bidez beteko dira. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Nafarroako Parlamentuko eta Nafarroako Foru Komunitateko Administraziooko funtzionarioek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) A mailako funtzionarioa izatea.

b) Zuzenbideko lizentziatuaren unibertsitateko titulua izatea.

c) Nafarroako Parlamentuko legelari edo Nafarroako Gobernuako aholkulari juridiko izendatua izatea eta aholkulari juridikoaren kargua hiru urtez, gutxienez, egiaz bete izana, aholkulari juridikoaren izendapena dutenen kasuan.

Lanpostu erreserbarik gabe borondatezko eszedentzian edo nahitaezko eszedentzian dauden funtzionarioek zilegi izanen dute lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdiak eskatzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; horrela, berriz sartuko dira jarduneko zerbitzuan eta lanpostu bat behin betikoz esleituko zaie.

2.2. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. oinarriaren ezarritako epe eta eran egiaztatu beharko dira. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko direla ulertuko da. Era berean, izangaiek 2. oinarri honetako 1. atalean esaten diren baldintza guztiak bete beharko dituzte hautapen prozesuak iraun bitartean. Hautapen prozesua izendapenarekin bukatuko dela ulertuko da.

### 3. oinarria.- Eskabideak.

3.1. Lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide gisa, eredu ofizialarekin bat (deialdi honen II. eranskina). Bertan jarriko dituzte izendeiturak, adina, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea eta telefonoa, halakorik badute.

3.2. Hurrengoak erantsi behar zaizkio eskabideari:

– Deialdi honen 2. oinarriaren ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztelako ziurtagiriak.

– Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, 1. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta berauen egiaztagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3. Eskabideak Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta egun eta ordu baliodunetan aurkeztuko dira Nafarroako Comptos Ganberako Erregistro Orokorrean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturaleko epean.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

### 4. oinarria.- Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du. Zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta onartutako izangaien izen-deiturak erakutsiko ditu.

4.2. Interesatuak egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahaliko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

4.3. Ezarritako epean eskabiderik aurkezten ez bada, leku-aldatze-lehiaketa hutsik gelditu dela adierazteko ebazpena emanen du organo eskudunak. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Hautagai bakarra ere onartuko ez balitz, lehiaketa eman gabe utziko litzateke.

**5. oinarria.-** Epaimahai kalifikatzailearen osaketa, eraketa eta jarduketa.

5.1. Hona hemen merezimendu lehiaketa epaitu behar duen epaimahaiko kideak:

Mahaiburua:

– Luis Ordoki Urdazi jauna, Nafarroako Comptos Ganberako idazkari nagusia.

Ordezkoa: Francisco Javier Sesma Masa jauna, Nafarroako Comptos Ganberako auditorea.

Mahaikideak:

– Pablo Díez Lago jauna, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusia.

Ordezkoa: Silvia Domenech Alegre andrea, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

– Ignacio Cabeza del Salvador jauna, Nafarroako Comptos Ganberako auditorea, erakundeko langileen batzordearen ordezkari. Idazkari lanetan ere arituko da.

Ordezkoa: Jesús Muruzábal Lerga jauna, Nafarroako Comptos Ganberako auditorea, erakundeko langileen batzordearen ordezkari.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost egunetako epearen barruan eratu beharko da.

Horretarako, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

5.3. Jardun ahal izateko, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

Erabakiak gehiengo hartuko dira eta mahai-buruak kalitatezko botoa izanen du.

5.4. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak ebatziko ditu.

**6. oinarria.-** Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Alegatu eta egiazaturiko merezimenduak deialdi honen I. eranskinean azaldu baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak.

6.2. Merezimendu guztiak agiri bidez alegatu eta frogatuko ditu izangai bakoitzak lekualdatze lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkeztean.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu, lehiatzaileek alegatutako merezimenduen gainean.

6.3. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez egiaztatu ez den merezimendurik, eta ez du emanen merezimenduen atal bakoitzarendako adierazitako puntuazioa baino altuagorik.

6.4. Lehiatzaileek lehiaketan guztira lortzen dituzten puntuetan berdinketarik bada, administrazio publikoen zerbitzuan antzinasunetik handiena dutenen alde joko da. Hori eginagatik ere, berdinketak hautsi gabe jarraitzen badu, lehiakide zaharrenaren alde egingen da.

6.5. Merezimenduak kalifikatu ondoren, epaimahaiak partaideek lorturiko puntuazioak paratuko ditu Nafarroako Comptos Ganberako iragarki ohelean, eta bost eguneko epea irekiko du interesdunek beren eskubidearen mesedetan balorazio horri buruz komeni zaiena alega dezaten.

**7. oinarria.-** Gainditu dutenen zerrenda ordenatua eta lanpostuaren esleipena.

7.1. Deialdiko 6.5 oinarrian aipatzen diren erreklamazioak ebatzi ondoren, epaimahaiak izangaien zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, igorriko dio Nafarroako comptos Ganberako lehendakariari. Horrek, hala behar izanez gero, hasieran deitutako lanpostuen kopurua handitzeko behar den erabakia hartuko du. Halaber, lehendakariak zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila aginduko du.

7.2. Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak puntuaziorik altuenak lortu dituzten izangaiak emanen dizkie lanpostuak, eta haien izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila aginduko du.

**8. oinarria.-** Lanpostua hartzea.

8.1. Izangaiak izendatu eta hamar egun naturaleko epearen barruan hartu beharko dute lanpostua, izendapenari buruzko erabakia jakinarazten zaienetik hasita.

8.2. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duten lehiakideek lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten dietela hartuko da, eta hala izanik, aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengoa den izangaiarekin beteko da lanpostua.

**9. oinarria.-** Aurkeztutako agiriak.

9.1. Izangaiak espresuki hala eskatuz gero, aurkezturiko agiriak berreskuratzen ahal dituzte, erreklamaziorik edo errekurtsorik paratu ez bada betiere. Agiriak berreskuratzeko eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu ahal da, lanpostuak esleitzeko ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta beste hiru hilabeteren buruan.

9.2. Aurreko atalean ezarritako epea agiriak eraman gabe bukatzen bada, ulertuko da izangaiak uko egin diola agiriak eskuratzeari eta horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsituko dira.

9.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, aurkezturiko agiriak gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak eramaten ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

**10. oinarria.-** Errekurtsuak.

Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien, izendatzeko erabakiaren eta Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsuetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsua, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eman eta biharamunetik kontaktatu hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo bereko Salari zuzendua, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Deialdi hau aurrera eramateko epaimahaiak hartzen dituen gainerako egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua paratu ahalko da, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari igorria, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

## 1. ERANSKINA

## Merezimenduak baloratzeko baremoa

a) Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak.

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuen balorazioa egiteko, puntu 1 emanen zaio urteko, deialdia argitaratzen den egunean onetsitako antzintasunari.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen zaie lehiatzaileei.

2. Honako a) atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 30 puntukoa izanen da.

3. Lanaldi partzialean egindako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

4. Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

5. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon den edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu den aldi-tako zerbitzuak, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin balitu bezala kontatuko dira.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa.

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolaturiko prestakuntza ekintzetan parte hartzea: 0,10 puntu, kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 irakastordu), eta gehienez ere 7 puntu.

Oharrak:

1. Baloratu beharreko ikastaroetan, ikastorduen zatikiak proportzionalki kalkulatu dira.

2. Ikastorduen iraupena agertzen ez duten ziurtagiriak kreditu batekoak izanen bailiran baloratuko dira.

3. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriei 12 kredituko balorazioa emanen zaie.

4. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, Administrazioak agindurik edo oniritzirik eginak diren prestakuntza ekintzetan parte hartzea puntuazio berarekin baloratuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek Administrazio Publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatuak sartuko dira.

2) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztea, beka jasotako edo sari-turiko zientzia edo ikerketa lanak egitea, aldizkari espezializatuetan lanak argitaratzea, baita itzulpe-nak argitaratzea ere: 2 puntu, gehienez ere, Epaimahaiak baloratu beharrekoak, lana edo jarduera bakarka edo taldean egin den eta biltzarrak edo argitalpenak herri, eskualde, estatu edo nazioarte-ko maila duen kontuan hartuz.

3) Sektore publikoan prestakuntza ekintzak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartzea: gehienez ere, puntu bat. Epaimahaiak baloratuko du haien iraupenaren arabera.

Oharrak b) atal osorako:

1. Atal honetan aipatutako merezimenduak deialdiko lanpostuarekin zerikusia izanez gero soilik baloratuko dira.

2. Honako b) atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 10 puntukoa izanen da.

## 2. ERANSKINA

## Eskabide eredia

Izen-deiturak: .....,  
adina: ....., NAN zenbakia: ....., helbidea  
(kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea): telefo-  
no zenbakia: ....., adeitasu-  
nez,

Adierazten dut:

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak 2005eko urtarrilaren 17an emandako ebazpenaren berri izan dut -haren bidez, legelari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko dei egin da-eta hartan parte hartu nahi dut:

Deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen ditut eskabideak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Horrenbertzez,

Eskatzen dut:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen ditudan merezimenduen egiaztagiria gaineratu ditut.

Iruñean, 2005eko .....aren .....(e)an.

## **Lehendakariaren, eledunen eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko behin-behineko langileen ordainsariak.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak lehendakariaren, eledun titular nahiz atxikien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko behin-behineko langileen ordainsariei buruz emandako txostena ikusi ondoren, 2003ko abenduaren 30eko bilkuran Legebiltzarreko Mahaiak onetsiriko irizpideei jarraituz, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15. eta 37. artikuluetan xedaturikoaren arabera, honako hau ERABAKI DA:

**1.-** Lehendakariaren 2005. urteko ordainsari gordinak 71.956,78 eurokoak izatea.

**2.-** Eledun titular edo atxikien 2005. urteko ordainsari gordinak 47.825,26 eurokoak izatea.

**3.-** Lehendakaritzako Kabineteko buruaren 2005. urteko ordainsari gordinak 49.060,90 eurokoak izatea.

**4.-** Lehendakaritzako idazkariaren 2005. urteko ordainsari gordinak 30.611,56 eurokoak izatea.

**5.-** Mahaikideen idazkariaren 2005. urteko ordainsari gordinak 24.613,96 eurokoak izatea.

**6.-** Parlamentu-taldeen laguntzaileen 2005. urteko ordainsari gordinak 24.613,96 eurokoak izatea.

**7.-** Halaber, sari bakarra eta kontsolidaezina ordainduko da, Nafarroako egiazko KPIren eta ehuneko 2aren arteko desbideraketa-ehunekoaren parekoa. Sari hori kalkulatzeko, 2004. urtean sortutako ordainsari guztiak hartuko dira oinarri.

**8.-** Hitzarmen bereziaren eraginpeko parlamentarien kotizazio-oinarriak errealizatzea, Zerbitzu Ekonomikoaren txostenean adierazitako irizpideei jarraituz.

**9.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 25ean.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren tarifak 2005eko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren tarifa berriak onestea. Hauexek izanen dira 2005eko ekitaldian:

- Urteko harpidetza: 42,35 euro

• Banakako aleak:

- Aldizkari Ofiziala 1,10 euro
- Bilkura Egunkaria 1,27 euro

**2.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## Enkanterako deialdia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren gaztelaniazko eta euskarazko edizioak eta Nafarroako Parlamentuko Bilkura Egunkaria inprimatu, paketatu eta banatzea adjudikatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen enkanterako deialdia egitea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren gaztelaniazko eta euskarazko edizioak eta Nafarroako Parlamentuko Bilkura Egunkaria inprimatu, paketatu eta banatzea adjudikatzeko.

– **Kontratuaren xedea:** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren gaztelaniazko eta euskarazko edizioak eta Nafarroako Parlamentuko Bilkura Egunkaria inprimatu, paketatu eta banatzea.

– **Adjudikatzeko prozedura eta modua:** enkanterako. Prozedura arrunta eta irekia.

– **Kontratuaren iraupena:** kontratua sinatzen denetik 2005eko abenduaren 31ra bitarte, luzatzeko aukerarekin.

– **Aurrekontua, gutxi gorabehera:** 100.300 € (ehun mila eta hirurehun euro, BEZa barne).

– **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:** klausula administratibo partikularren pleguan adieraz-

ten dena. Dokumentuek jatorrizkoak izan beharko dute, edo, bestela, notarioak zein administrazioak konpultsatutako kopiak.

– **Proposamenak aurkezteko tokia eta epea:** Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita hogeita zazpigarren egun naturaleko 12:00ak baino lehen.

– **Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea:** proposamenak aurkezteko epea bukatu eta biharamunetik zenbatzen hasita seigarren egun naturaleko 12:00etan, Nafarroako Parlamentuko egoitzan (Navas de Tolosa kalea, 1).

– Baldintza teknikoak eta klausula administratiboaren plegua lizitatzaileren eskura daude Nafarroako Parlamentuko Idazkaritza Nagusian (Navas de Tolosa kalea, 1, Iruña. Web orria: [www.parlamento-navarra.es](http://www.parlamento-navarra.es)).

Iruñean, 2005eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,27 »	